BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3142

EBAZPENA, 2010eko urriaren 11koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinen bidez, sozietateari Óxidos Recumet, S.L. sozietateari transmititzen baitzaio Nervacero, S.A. sozietateari emandako ingurumen-baimen bateratua, altzairu-hautsa kudeatzeko prozesuaren bidez briketa autoerreduktoreak ekoizteko, eta aipatu baimena gauzatzen da.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen uztailaren 1eko 16/2002 Legean xedatutakoaren arabera, Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen bateratua ematen zaio Nervacero, S.A. sozietateari maila elastiko handiko altzairu korrugatuak eta totxoa ekoizteko, Valle de Trapaga-Trapagaran eta Portugaleteko udalerrietan (Bizkaia).

2008ko ekainaren 13an, Nervacero, S.A. sozietateak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen aipatu 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren aurka, eta, besteak beste, eskatzen zuen aintzat hartzea altzairu-hautsaren autokudeaketa, izan ere, aipatu altzairu-hautsen tratamendua burutzen du briketa autoerreduktoreen bidez; gero, horiek labean berriz sartzen dira zinkean aberastutako produktu bat –Óxido Recumet izenekoa– lortu arte. Ondoren, produktu hori lehengai gisa erabiltzen da zinka ekoizteko prozesuetan.

Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren 2009ko martxoaren 2ko Aginduaren bidez ebatzi zen aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa, eta 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren Lehenengo, Bigarren A eta Bigarren C.1.3.1 atalak aldatu ziren, eta Bigarren C.2 atal berri bat sartu zen aipatu altzairu-hautsaren autokudeaketa jarduera sartzeko.

2009ko maiatzaren 6an, Nervacero, S.A. sozietateak agiri bat aurkeztu zion ingurumeneko organo honi, Nervacero, S.A. eta Óxidos Recumet, S.L. sozietateek sinatua, azken sozietate horren aldeko administrazio-baimena emateko altzairu-hautsaren autokudeaketarako, lehenengoari eman zitzaion bezalaxe.

2010eko martxoaren 9an eta 2010eko ekainaren 7an, ingurumeneko organoak hondakinen kudeaketari buruzko informazio zehatza eta osoa eskatu zion Nervacero, S.A. sozietateari, baita agiri gehigarriak ere; eskakizun horri erantzunez, 2010eko maiatzaren 20an eta 24an eta ekainaren 23an, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak agiri teknikoak eta administratiboak aurkeztu zituen.

2010eko irailaren 9an, Ingurumeneko Sailburuordetzari atxikitako zerbitzu teknikoek ikuskaritza-bisita egin zuten Óxidos Recumet, S.L. sozietatearen instalazioetara, Valle de Trápaga-Trapagaranen, egiaztatzeko instalazioak eta jardueraren ekipamendua doitzen direla ingurumen-baimen bateratuaren izapidetzean eman zen informaziora; alderdi horiek barne hartzen dituen AAI00310/1 akta jaso zen.

16/2002 Legearen I. eranskinean jasotzen dira (16/2002 Legea, uztailaren 1koa, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa), eta, beraz, dagokien ingurumen-baimen bateratuaren menpe daude, batetik, maila elastiko handiko altzairu korrugatuak eta totxoa ekoizteko jarduera, Nervacero, S.A. sozietateak sustatua, eta, bestetik, altzairu-hautsa kudeatzeko prozesuaren bidez briketa autoerreduktoreak ekoiztea, orain Óxidos Recumet, S.L. sozietateak burutzea aurreikusten dena.

Nervacero, S.A. sozietateari ingurumen-baimen bateratua emateko 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren hirugarren atalaren arabera, baimen hori eskuratzeko baldintza da, aurretik, Ingurumeneko Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatzea zenbait baldintza betetzen direla.

Aintzat hartuz Óxidos Recumet, S.L. sozietateak aurkeztutako agiriak aztertuta eta hark Valle de Trápaga-Trapagaranen dituen instalazioetara egindako bisitak, ondorioztatzen da enpresak bete dituela, oro har, 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenean zehaztutako baldintzak dagokion ingurumen bateratuko baimena eskuratzeko, altzairu-hautsa kudeatzeko prozesuaren bidez briketa autoerreduktoreak ekoiz dezan.

Ingurumeneko organo honi dagokio ebazpen hau emateko eskumena, 3/1998 Lege Orokorrean (otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa) eta 629/2009 Dekretuan (abenduaren 22koa Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) ezarritakoaren arabera.

Ikusirik 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuarena; 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuena; 629/2009 Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa,Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, eta aplikazioko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Partez transmititzea Óxidos Recumet, S.L. sozietateari (helbidea: Numancia kalea 185, 6. solairua, Bartzelona; IZK: B20843272), 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez Nervacero, S.A. sozietateari emandako ingurumen-baimen bateraturako baimena, zehazki, altzairu-hautsa kudeatzeko prozesuaren bidez briketa autoerreduktoreak ekoizteko dena, Valle de Trápaga-Trapagaraneko udalerrian.

Jarduera hori 16/2002 Legearen 1. eranskineko 4.2 kategorian dago sartuta (uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa): «Oinarrizko produktu kimiko ez-organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak».

Óxidos Recumet, S.L. enpresa Valle de Trápaga-Trapagaraneko udalerriko Ballonti auzoan dago (z/g).

Briketak ekoizteko instalazioa Nervacero, S.A. sozietatearen instalazioen barnean dago.

Instalazioaren tratamendu-ahalmena urteko 12.000 tm-koa da.

Altzairutegiko keak arazteko sistemetan bildutako material aberastuen, koke-hautsen eta aglomeratzaile baten nahasketaz osatua dago briketa autoerreduktorea. Koke-hautsen helburua da erredukzio-gaitasuna ematea, eta aglomeratzailearena, aldiz, erresistentzia mekanikoa ematea, briketak xehatu gabe eutsi ahal izateko erabilera-puntura iritsi arte jasan beharreko manipulazioei, hau da, arku elektrikoko labearen barnea.

Nahasketa prentsa briketatzaile bat erabiliz prentsatzen da; bi arrabolek osatzen dute, bata ardatz finkokoa, eta bestea ardatz mugikorrekoa.

Erabilitako aglomeratzailea polialkohol bat da, eta, oso ur gutxirekin kontaktuan, gel bat sortzen da, zeinarekin estaltzen baitira nahasketaren partikulak. Nahasketak hezedura galdu ahala, gela aglutinatzaile erresistenteagoa bilakatzen da, briketei manipulatuak izateko nahikoa trinkotasun eman arte.

Fabrikazio-prozesuaren ondoren, umotze-aldi labur bat eskatzen da, briketak euren ezaugarri mekaniko hoberenetara irits daitezen. Horretarako, briketatze-instalazioan biltegiratzen dira briketak aldi baterako, umotu eta gero, biltegira eraman daitezen labean erabiliak izateko. Fabrikazio-prozesuan hausten diren briketak berriz sartzen dira bertan.

Briketak arku elektrikoko labean sartzen dira labearen tapako bosgarren zulo baten bidez, altzairuzko fabrikazio-prozesuaren gainerako gehigarriak bezalaxe. Briketen dosifikazioa egiten da pisatzeko eta altzairutegiko gehigarriak zentraletik garraiatzeko sistemen bidez, gainerako gehigarriak bezalaxe. Briketak labean sartzen dira altzairuzko bainua prestatzeko aldietan, burdineriaren gehigarria baino lehen, keak arazteko sistemaren gainesfortzua saihesteko. Briketa autoerreduktoreak altzairutegiko labean erabiltzeak ez du inongo alteraziorik eragiten ohiko lan-baldintzetan (energia-kontsumoa, gasa, koke, prozesatzen-denbora eta abar), eta ez du altzairuaren, ez sortutako hondakinen konposizioa aldatzen.

Briketak fabrikatzeko prozesua ez da jarraitua, instalatutako nahastailuak loteka funtzionatzen baitu. Instalazioan ezarritako potentzia 250 kW-koa da.

Ekoizpen-prozesuak ez du bestelako prozesu osagarririk. Nahasketa sortzeko ekoitzitako briketa tonako, % 10 eta 15 ur bitartean kontsumitzen da, eta, umotze-prozesuan, gehiena lurruntzen da. Ez da isurtze industrialik sortzen.

Instalazioak behar duen energia elektrikoa Nervacero, S.A. sozietatearen saretik lortzen du, eta ez du bere transformadore propiorik. Lan-baldintza normaletan, urteko 280.000 kWh kontsumitzen da.

Briketak ekoizteko instalazioan, ez dago erregaien gordailurik, ez baita erabiltzen ez erretzailerik, ez leherketa-motorrik.

Plantan, urtero, 1.050 m^3 emari kontsumitzen da. Kontsumitutako uraren % 20, gutxi gorabehera, briketaren egituran geratzen da, eta gainontzekoa lurrundu egiten da. Ez dago ur-isurtzerik, eta kontsumitutako ur guztia Nervacero, S.A. sozietatearen hornidura-sare orokorretik etortzen da; ez dago uraren birzirkulaziorik.

Isuriei dagokienez, ez dago foku konfinaturik, eta barreiatutako isuri nagusiak transferentziaren edo materialen manipulazioaren ondorio dira. Kasu honetan, briketatze-instalazioak biltegiratzeko bi zulo ditu, bata, zinkean aberastutako materialarentzat, eta, bestea, koke-hautsentzat, zeinak mahuka-filtroak baitituzte goiko partean. Instalazio hauen funtzionamendu-erregimena ez da jarraitua, eta deskarga-prozesuetan soilik daude aktibo.

Lantegiaren barnea eta alboko zonak hormigoituak daude.

Ez da prozesu-urik sortzen, eta, beraz, euri-urak soilik sortzen dira. Euri-urak lantegiaren zorrotenetatik biltzen dira, eta Nervacero, S.A. sozietatearen euri-uren zirkuituetako batera kanalizatzen.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsu nagusiak Óxidos Recumet, S.L. sozietatearen jardueraren zerbitzu orokorretakoak dira.

Proiektuak barne hartzen ditu 2006ko abuztuko Reference Document on Best Available Techniques for the Waste Treatment Industries delakoaren markoan teknika erabilgarri onenentzat

hartzen diren neurritzat (TEOak) jo daitezkeen neurri hauek, besteak beste: zola hormigonatua planta guztian, mahuka-filtroekin ekipatutako zuloak hauts-itxurako lehengaietan.

Bigarrena.– Baldintza eta eskakizun hauek ezartzea altzairu-hautsa kudeatzeko prozesuaren bidez briketa autoerreduktoreak ekoizteko Óxidos Recumet, S.L. sozietateak sustatutako jarduera ustiatzeko, Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrian.

A) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak sei milioi (6.000.000) euroko erantzukizun zibileko aseguru bat du, ondorengoak estaltzen dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondoriozko ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera igota.

B) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak hirurogeita hamar mila (70.000) euroko fidantza bat ezarri du. Fidantza horren zenbatekoa plantan ezarritako tratamenduaren gehienezko gaitasunaren arabera zehazten da: 12.000 tm ezarri da urteko.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da ingurumen organoak horrela eskatuz gero, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezio indizearen arabera (KPI) handituz.

C) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak Administrazioarekiko harremanen goi-tituludun arduradunari buruz emandako datuen edozein aldaketaren berri emango dio Ingurumen Sailburuordetzari.

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira:

D.1.– Hondakinak onartu, jaso, ikuskatu, biltegiratu eta tratatzeko baldintzak eta kontrolak.

D.1.1.– Hondakin arriskutsu onargarriak.

Óxidos Recumet, S.L. sozietatearen instalazioetan onartuko dira Nervacero, S.A. sozietateak sortutako hondakinak, baldin eta hondakinek betetzen badituzte atal honetan adierazitako berariazko onarpen-baldintzak eta organo honek baliotutako onarpen-agirian ezarritako onarpen- eta jasotze-irizpideak, betiere.

Hondakin-mota	Hez kodea
Gai arriskutsuak dituzten gas-tratamenduko hondakin solidoak	100207

D.1.2.– Hondakin arriskutsuen onarpena eta sarrera-kontrola.

a) Baimen honen xede diren hondakinak briketa autoerreduktoreak ekoizteko plantan soilik jasoko, biltegiratuko eta tratatuko dira, Nervacero, S.A. sozietatearen instalazioen barnean Óxidos Recumet, S.L. sozietateak duen plantan (Ballonti auzoa z/g, Valle de Trápaga-Trapagarango udalerria).

b) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak onarpena egiaztatzeko agiria bidaliko dio Nervacero, S.A. sozietateari, zeinetan zehazten baitira honen baldintzak.

Hondakina jaso aurretik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatu beharko da, hala badagokio, jasotze hori formalizatuz. Horretarako, kontrol eta jarraipenerako agirian, edo horren baliokidea den agiri ofizialean, kudeatzaileari dagokion atala bete beharko da hondakin-partida bakoitzerako.

c) Baimen honetan zehaztutako hondakinak baizik ez dira onartuko. Dena dela, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da aldez aurretik Ingurumen Sailburuordetzaren onespena eta ebazpen honen K atalean adierazitakoa betetzea.

d) Aurreko ataletan zehaztutako agiriak, ahal dela, IKS-eeM sistemaren bidezko transakzio elektronikoaren bidez bidaliko zaizkio ingurumen-organoari.

D.1.3.– Jasotako hondakinen biltegiratzea.

Hondakinak jasotzeko eta tratatzeko posibilitatea segurtatzeko, 80 m^3-ko zulo bat izango da, garraio pneumatikoko sistema baten bidez elikatzen dena, Nervacero, S.A. sozietatearen keak arazteko sistemaren irteerako zulotik. Halaber, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak beharrezko instalazioa izango du materiala jasotzeko zulo baskulagarri batetik egindako deskarga pneumatikoaren bidez, sistema integratuak huts egiten duenerako.

Fabrikaren barneak eta alboko zonek hormigonatuak izan beharko dute, material-isuri posibleak azkar biltzeko.

D.1.4.– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa.

a) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, bost urtez, gutxienez.

Aipatu agiriak modu egokian fiskalizatzea errazteko, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak IKS-eeM sistema informatikoa erabiliz bidali eta jasoko ditu agiri horiek.

b) Halaber, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak erregistro bat izango du, non bilduko baita zein eragiketetan parte hartzen duen; bertan, datu hauek agertuko dira, gutxienez:

● Jasotze-datak eta briketatutako altzairu-hautsaren kopuruak.

● Datak eta gehigarri gisa birzirkulatutako altzairu-hautsaren kopuruak.

● Bidaltze-datak eta lehengai bezala erabilitako Óxido Recumet produktuaren kopuruak eta produktu hori jasotzen duten enpresen identifikazio-datuak.

● Óxido Recumeten karakterizazio analitikoa, destino horren egokiera egiaztatzeko.

● Hala behar denean, baimendutako azken kudeatzaileari zein datetan bidali zaion eta kudeatzaile horren identifikazio-datuak, baita sortutako kontrol- eta jarraipen-agiria ere, partidaren batek produktua merkaturatzeko kalitate-parametroak betetzen ez baditu.

● Halakorik bada, sortutako hondakinen kantitateak, jatorria, osaera eta identifikatzeko kodea, eta horiek nora eramatea aurreikusita dagoen. Baimendutako kudeatzailearen berariazko onarpena izan beharko du.

● Sortutako hondakin arriskutsuen kudeatzaileari noiz bidali zaion, kudeatzaile horren eta kontrol-agiriaren identifikazio-datuak eta sortutako jarraipena.

c) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak hilero bidali beharko dio garatzen dituen kudeaketa-jardueren txosten ulergarria Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta

Arrantza Saileko Ingurumen Sailburuordetzari. Txostenean, berariaz adierazi beharko ditu kudeatutako hondakinen jatorria, kopuruak eta ezaugarriak eta horiek nora eraman diren.

d) Halaber, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen, jardueren urteko memoria aurkeztu beharko du, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

D.1.5.– Óxido Recumet merkaturatzeko baldintza orokorrak.

a) Parametro hauek ezartzen dira Óxido Recumet merkaturatzeko:

● Zenbat zink duen: >% 38 pisuan.

● Zenbat fluoruro duen: <% 0,25 pisuan.

● Zenbat antimonio duen: <% 0,1 pisuan.

b) Aurreko atalean adierazitako onarpen-parametroak betetzen ez dituzten Óxidos Recumeten kasuan, helburu horretarako baimendutako kudeatzaileari eman beharko zaizkio. Dena den, lehenetsiko dira hondakinak balioztatzera daramaten kudeaketa-bideak, egokienak baitira uzteko edo ezabatzeko aukeren aldean. Azken kudeaketa-bidea uztea edo ezabatzea izanez gero, hondakinen partida bakoitzerako balioztatu ezina justifikatu beharko da, eta partida horiek hustu aurretik egin beharko da, betiere.

c) Óxidos Recumetak produktu gisa aintzat hartuz, dagozkion entseguak egingo dira Segurtasun Datuen Fitxan dagozkion atalak betetzeko (FDS).

D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.2.1.– Ustiaketarako baldintza teknikoak.

E.1 atalean adierazitako hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta gordetzeko baldintzak eta kontrolak kaltetu gabe, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak bermatu beharko du honako baldintza hauek betetzen direla:

a) Instalazioak sare bat izango du euri-urak biltzeko eta husteko, zeinak Nervacero, S.A. sozietatearen euri-uren zirkuituetako batera kanalizatuko baitira. Gainera, dekantatze-ontziak izan beharko ditu zirkuituan zehar, partikulen herrestatze posibleak minimizatzeko.

b) Lehengaia 80 m^3-ko edukiera duen zulo batean gordeko da; hura sistema pneumatiko baten bidez elikatuko da altzairutegiko keak arazteko sistemaren irteerako zulotik. Zulo honek mahuka-iragazki bat izango du, isurketak minimizatzeko.

c) Koke-hautsak 50 m^3-ko zulo batean gordeko dira, deskarga pneumatikoko sistema bat erabiliz. Zulo honek mahuka-iragazki bat izango du, isurketak minimizatzeko.

d) Aglomeratzailea 1.000 litroko biltegietan gordeko da, gutxienez 1.000 litroko atxikitze-gaitasuna duten kubetetan, hain zuzen.

D.2.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.2.2.1.– Baldintza orokorrak.

Óxidos Recumet, S.L. sozietateak briketa autoerreduktoreak ekoizteko prozesuan atmosferara isurtzen dituen gai kutsatzaile oro bildu, eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da,

behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Isuri horren berri Ingurumen Sailburuordetzari eman behar zaio, isuri-fokuen katalogazioa egiteko. Aplikatu behar zaizkien isurtzeko muga-balioak beteko dituzte sortutako isuriek.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez gertatzeko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

D.2.2.2.– Isuri atmosferikoen kontrola.

Óxidos Recumet, S.L. sozietateak burututako jardueran, isuriak sortzen dira:

● Zinkean aberastutako materiala gordetzen den zonan.

● Koke-hautsak gordetzen diren zonan.

Gordetzeko bi zulo horiek mahuka-filtroak dituzte beheko partean, eta, gainera, prebentziozko mantenu-plan bat ere badago filtroaren elementuen garbiketa eta osotasuna kontrolatzeko. Horren helburua da filtro-sistema hauen funtzionamendu hoberena bermatzea.

D.2.3.– Plantan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak kudeatuko dira hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Berariaz debekatuta dago sortutako mota desberdinetako hondakinak elkarren artean edo beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea; jatorrian bereizi behar dira haiek, eta behar diren biltze- eta biltegiratze-bitartekoak jarri behar dira haiek ez daitezen nahasi.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatzegune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada ez dela bideragarria horiek balioztatzea teknikaren, ekonomiaren edota ingurumenaren aldetik. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko da, balioztatzeko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko instalazio baimenduak baldin badaude Euskal Autonomia Erkidegoan, bada, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken norakoa zabortegi baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa kontuan hartu behar dira. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (2.d idatzi-zatian) ezarritakoaren kaltetan izan gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko,

sortutako hondakinen kopurua handitzeak aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurtzeak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Valle de Trápaga-Trapagarango Udalean.

D.2.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1 hondakina: «Olio zikinak».

– Identifikazioa: B20843272/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5//A212//B0019.

– EHZ: 13 02 05.

– Urtean zenbat sortu den: 50 litro.

Makinen mantenu-lanetan sortzen da; olio erabiliak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan jasotzen da, hondakinen biltegian.

○ 2 hondakina: «Metalezko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: B20843272/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51/41//H5//A212//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean zenbat sortu den: 50 kg.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; olioak eta koipeak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan jasotzen da, hondakinen biltegian.

○ 3 hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: B20843272/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51/41//H5//A212//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean zenbat sortu den: 20 kg.

Ontzi hutsak jasotzerakoan sortzen da; olioak eta produktu kimikoak (aglomeratzaileak) jaso dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan jasotzen da, hondakinen biltegian.

○ 4 hondakina: «Bustitako materialak».

– Identifikazioa: B20843272/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S34//C51/41//H5//A212//B0019.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean zenbat sortu den: 20 kg.

Makinen mantentze-lanetan sortzen da.

Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan jasotzen da, hondakinen biltegian.

○ 5 hondakina: «Olioaren iragazki eta tenkagailuak».

– Identifikazioa: B20843272/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S35//C51//H5//A212//B0019.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean zenbat sortu den: 10 kg.

Sisteman hidraulikoetan sortzen da.

Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan jasotzen da, hondakinen biltegian.

○ 6 hondakina: «Zinkean aberastutako hautsa».

– Identifikazioa: B20843272/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q9//R13//S25//C5//H5//A212//B0019.

– EHZ: 10 02 07.

– Urtean zenbat sortu den: 50 kg.

Istripu-isuriak sortzen dira; haien osaeran metalak dituzten hautsak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan jasotzen da, hondakinen biltegian.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek 833/1988 Errege Dekretuaren (uztailaren 20koa, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoa, betearazteko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabete baino gehiagoz biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da bat datozela tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da, hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela proposatutako kudeaketa-modua.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena eginda dagoela, araudian zehaztutako aurretiaz, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. Óxidos Recumet, S.L. sozietateak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtez gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak betetzen dituela horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak.

h) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak 679/2006 Errege Dekretuaren (ekainaren 2koa, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duena) eta 259/1998 Dekretuaren (irailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duena) arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira (otsailaren 25ekoa, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoa). Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete egin beharko dute otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruz xedatutakoa.

Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria izateko, eraman aurretiazko jakinarazpena egiteko eta kontrolaren eta jarraipenaren agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta horien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman-izanaren egiaztagiriak bost urtez gorde beharko dira, gutxienez.

Edonola ere, atal honen l) idatzi-zatian definitutako hondakinak sortzeari buruzko kontrol-erregistroak jasoko ditu sortutako ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinen kopuruak.

j) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituen artean, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu 1378/1999 Errege Dekretuko (abuztuaren 27koa, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena), eta 228/2006 Errege Dekretuko (otsailaren 24koa, aurreko errege-dekretua aldatzen duena) baldintzak.

k) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak bere eskuetan dituen heinean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2037/2000 (EE) Erregelamenduan zehazturiko substantzia erabiliak (ekainaren 29koa, ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa), berreskuratu egingo dira, aldeek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein

deuseztatze-bide tekniko erabiliz deuseztatzeko, edota birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko dira, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko lanetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek jasotzeko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

m) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta l) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

n) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak bete egin beharko ditu 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak (otsailaren 1ekoa, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoa). Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira (martxoaren 31koa, amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak ezartzekoa).

o) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Nahiz eta kode batzuek aldaketaren bat izan dezaketen, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Hondakina zein motatakoa den eta zein osagai arriskutsu dituen (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota) definitzen dute, bai eta hondakina zein jarduerak eta zein prozesuk sortzen duen ere (uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota). Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, eskatzen bada berreskurapena edo balioa ematea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeko.

D.2.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Hauek dira sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen	Gutxi gorabeherako ekoizpena
Papera eta kartoia	15 01 01	Orokorra	20 kg
Zurak	15 01 03	Orokorra	50 kg

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi, eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio –hornitzaileari–, erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati emango zaizkio.

b) Hondakinen azken helburua horiek ezabatzea denean, ezingo dira urtebetez baino gehiago biltegiratu. Hondakinen azken helburua horiek balioztatzea denean, aldiz, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak ebakuatu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, egiaztatzeko proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua egokitzen zaiela ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei. Óxidos Recumet, S.L. sozietateak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtez gutxienez.

d) Halaber, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da, 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz (otsailaren 24koa, hondakinak zabortegietan utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzekoa). Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituena: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Ingurumen Sailburuordetzari urtero bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM sistema erabilita.

D.2.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritakoak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak ebazpen honetako G.3 atalean jasotako neurriak (ezohiko jardunean aplikatzeko prebentzioari eta jarduketari buruzkoak) eta ebazpen honetako E.2.3 atalean jasotakoak (hondakinak biltegiratzeari buruzkoak) hartuko ditu.

Gainera, edozein arrazoirengatik lurzoruak induskatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, induskatu behar diren materialak karakterizatu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehazteko. Karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako helmuga zehatza Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri behar dira material horiek atera aurretik, lanak onartu ahal izateko. Bidalketa hori eta onarpena, hala badagokio, ebazpen honetako K idatzi-zatian jasotako aldaketa-araubidearen esparruan egingo dira.

D.2.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Beharrezko neurri guztiak ezarriko dira indize akustiko hauek gaindi ez daitezen:

a.1) Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzen barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60\ segundo}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB ere.

a.2) Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzen barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60\ segundo}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB (A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB (A) ere.

a.3) Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du gainditukо eguneko inolako baliotan ($L_{Aeq,d}$, $L_{Aeq,e}$ eta $L_{Aeq,n}$) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq},T_i). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu gainditukо 1. taulan 5 dB-tan finkatutako balioak.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

E) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa gauzatu beharko da sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera:

E.1.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Ekoitzitako briketak	t/urteko
Lehengaien guztizko kontsumoa / ekoitzitako briketa t	t / briketa t
Energia elektrikoaren kontsumoa / ekoitzitako briketa t	Kwh / briketa t
Ur-kontsumoa / ekoitzitako briketa t	m^3 / briketa t
Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kantitatea / ekoitzitako briketa t	Kg / briketa t
Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea / ekoitzitako briketa t	Kg / briketa t

E.2.– Zarataren kontrola.

a) L_d, L_e, L_n, $L_{Aeq,Ti}$ eta $L_{Aeq,60\ segundos}$ indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira, hiru urtero. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak nolako maiztasunarekin egin.

b) ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak. Nolanahi ere, ingurumen organoak zainduko du gaitasun tekniko egokia dutela ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

E.3.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, eta ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera, betiere. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira, betiere.

E.4.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

F) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

F.1.– Planta gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

F.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, Óxidos Recumet, S.L. sozietateak lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedura hasi beharko du, bi hilabeteko epea agortu baino lehen, jarduera

behin betiko uzten duenetik hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

F.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jokabideak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Jarioak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), egon daitezkeen jarioei antzemateko neurriak edo gehiegi bete direneko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoru gaineko isurpenak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta, bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, olioak, erregaiak eta gehigarriak, eta, orokorrean, plantan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isurtzeak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lursailen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hautsezko produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten zulo itxiak izango dira.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbiketa-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira, edo zabortegi baimendura eramango.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurtzeak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak eraginkorrak izan daitezen.

l) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren baten edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakin, erregai edo substantzien isurtze garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

m) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isurtzeren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurtzea bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak, berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

G) Óxidos Recumet, S.L. sozietateak atmosferara eta uretara botatako isurketei eta sortutako hondakin-mota guztiei buruzko datuak jakinaraziko dizkio urtero Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Poluitzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuari jarraikiz (apirilaren 20koa, E-PRTR Inbentarioko emisioei eta ingurumen-baimen bateratuei buruzko informazioa ematea arautzen duena).

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Aipatu transakzioari eusten dion operatiboaren oinarria da barne hartzea Ingurumen Adierazpenean barne hartutako ingurumeneko datu teknikoak eta/edo prozedurakoak, IKS-eeM sistemaren (Ingurumen-Informazioa Kudeatzeko Sistema) entitateen bertsioa deiturikoaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri). Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, 27/2006 Legeak (uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituena) xedatutakoari jarraikiz –2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu–, eta, betiere, 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da (abenduaren 13koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa).

H) Apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren

substantziek giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, hain zuzen ere.

I) ingurumen-baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute 16/2002 Legearen 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin (16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa); aldaketok funtsezkoak direnean, beste ingurumen-baimen bateratu bat beharko da.

Instalazioetan egiten den aldaketa oro jakinarazi egin beharko da; horretarako, hona helbide elektronikoan datorren formularioa beteko da: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informacion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, organo horrek kalifikatuko du eskatutako aldaketa, eta esango du funtsezkoa den ala ez.

Era berean, proiektatutako aldaketa 3/1998 Legearen IB eranskinean (3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskadiko Ingurumena Babestekoa), edo 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean (1/2008 LED, urtarrilaren 11koa, proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzekoa) sartuta badago, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio hizpide dugun aldaketari baimena eman aurretik.

Baldin eta aldaketa ez badago jasota ez 3/1998 Legearen IB eranskinean ez 1/1208 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean, baina bai horren II. eranskinean, organo honek gehienez ere hiru hilabeteko epean erabakiko du aldaketa horri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez, betiere 30/1992 Legearen arabera (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Hirugarrena.– Gauzatzea Óxidos Recumet, S.L. sozietateari emandako ingurumen-baimen bateratua, hain zuzen ere, altzairu-hautsa kudeatzeko prozesuaren bidez briketa autoerreduktoreak ekoizteko emana, Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrian; 16-I-01-000000000310 instalazio-kodea ematen zaio.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen bateratu hau 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da, eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumen-baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuetan.

Artikulu hori betetzearen kalterik gabe, aldatu ahal izango dira ebazpen honen baldintzak –ingurumena zaintzeko programan jasotakoak barne hartuta–, jardueraren sustatzaileak eskatuta, behar bezala justifikatuz gero. Gainera, ofizioz aldatu ahal izango dira, honako egoera hauetan:

● Araudi berria indarrean jartzen bada.

● Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, eta bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

● Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

Seigarrena.– Óxidos Recumet, S.L. sozietateak ebazpen honen xede den altzairu-hautsa kudeatzeko prozesuaren bidez briketa autoerreduktoreak ekoizteko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen hau iraungitzeko arrazoi izango da Óxidos Recumet, S.L. sozietatearen nortasun juridikoa bukatzea, indarreko araudian ezarritako kasuetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Óxidos Recumet, S.L. sozietateari, Nervacero, S.A. sozietateari, Valle de Trápaga-Trapagarango Udalari, Portugalete Udalari, ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Horrela ezartzen du 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena); urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 11.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.